

KIRI-KIRI-KEN KANTA

Haurrak, gezurrak eta mitoak

Haurrentzat gezurra esatea amaren kontrolpetik ezkutatzeke modua da. Baina denbora baterako balio du. Donald Winnicott psikoanalistak hala zioen: “Ezkutatzea atsegina da, baina aurkitua ez izatea, infernua”. Artikulu honen abiapuntua haurrentzako kanta bat da, ama gezurtatzeak duen ondorioez hitz egiten duena. *Kiri-kiri-ken* du izena, Aita Onaindiaren *Jolasketa* liburuan, 1965ean, argitaratu zen, eta hitzen zein doinuaren egilea Nemesio Etxaniz izan zen (1899 Azkoitia-1982 Donostia). Gure belaunaldikook, 60ko eta 70eko hamarkadetan ikastolan abesten genuen, egileak berak kantatuta. Gerora Txirri eta Mirri eta Txiribiton pailazo taldeak *Tortolika* diskoan jaso zuen, 1985. urtean.

 IDOIA AGIRRE LASARTE  ARGIA

*Ez da gauza erraza
kiri-kiri-ken, kiri-kiri-ken
ez da gauza erraza
ama gezurtatzen.*

*Kiri-kiri-ken-du
dena jakiten du.
Kiri-kiri-kik
zelan badakik?
Kiri kiri-ko-ko-ko-ko
hatz txikiak esaten dio!
Den-den dena esaten dio.*

Abesti honetan haurrak autonomia garatzen duenean, eta gezurrak esateko gai denean, helduak nola erantzuten duen adierazten da. Txikiak handia izan nahi du eta handiak txikiaren beharra du. Europako beste herrialdeetan, haurrentzako ipuin eta kantuetan, handiaren eta txikiaren dialektika oso erabilia da, baita babesgabekoaren eta guztiahaldunaren arteko harremana ere. Kanta honetan hatz txikiak laguntzen dio amari arrakalarik gabeko jakituria edukitzen.


Frantsesez hatz txikiari “*l’auriculaire*” esaten zaio, belarrian sartzeko neurria duelako. Hortik aurrera, hatz txikiak sinbologia indartsua du: zulo-txotik barrura sartzeko da eta sekretuek eta intimitateaz hitz egin dezake.

Haurrak desira propioak eta horiek betetzeko autonomia nahikoa duenean, gezurrak esateko aukera eta premia sortzen zaio. Gezurra da egiaarekin bat ez datorren zer-bait esatea, mezua jasoko duen pertsona engainatzeko. Umeak gezurra esan aurretik bi baldintza bete behar ditu. Bata, errealitatea ondo menderatzea, fantasiarekin nahastu gabe; eta bestea, bere lekuan, ordezkoko bat asmatzea, hau ere erreala –eta ez imajinarioa– dena. Horiek biak dira gezurra-
ren funtsa.

Gezurra esateko motibazioa ez da soilik kontzientea, inkontzientea ere bada. Abesti honetan, esaterako, amarekin lotutako afektu kontrajarriak daude: alde batetik amarekin lotura mantentzeko gogo du eta bestetik lotura hori eteteko nahia.

Gezurra autonomia lortzeko gogoarekin lotuta dago. Baina baita horrek sortzen duen kezkarerekin ere. Gezurra esateak bestearekiko etena adierazten du. Horrexegatik, abestitxo honek abisu egiten du. Haurrentzako ipuinen gai nagusia, askotan, gurasoen mendekotasunetik irtetea izaten da. Eta horretan figura erregulatzaileak agertzen dira. Horren adibide dugu Pinotxo gezurtiaren eta Kilker hiltzaren arteko harremana, gatazkaz betetako. Kilker hiltza, kontzientzia

**Iruditzen zait
helduaren haserrearen
lekuko dela abestiaren
egituran itsatsita
dagoen leloa”**





IRAILEKO DOAKO JARDUERAK

Irailaren 1etik 29ra

**BIDE-SEGURTASUNARI
BURUZKO HAURRENTZAKO
DOAKO TAILERRA**
Kids Zone gunean.

Irailak 14

CALL OF DUTY TXAPELKETA
Hype Station® gunean.

Irailaren 26tik 28ra, 10:00-22:00

**"DISKOGRAFIA ETA
ZINEMATOGRAFIA
BILDUMAZALETASUNAREN
NAZIOARTEKO AZOKA".**

Bildumagile binilo, CD, pelikula eta artikuluak erosi, saldu edo trukatzeko.

ETA GAINERA...

Adi egon gure sustapen eta zozketei www.urbil.es-en eta Instagram-eko profilan.



Jarraitu  @urbil_cc



urbil.es

moralaren irudia da. Haurra txikia de-
nean eta gurasoekiko mendekotasun
handia duenean, gurasoak eta haien
esanak dira erreferente nagusiak. Baina
haurra handitzen doan neurrian, errea-
litatea eta fantasiaren arteko desber-
dintasuna egiten ohituko da. Pixkanaka,
haurra, maite dituen horiekin distan-
tzia hartzen joango da. Bere inguruko
helduekin identifikatuko da, horrekin
bere izaera osatuz; eta aldi berean bere
etika propioa eraikiko du. Horrela, bere
ekintzen eta gogoen arabera jokatzeko
hasiko da.

Kanta honek adierazten digu haurra-
ren eta amaren arteko harremana zein
korapilatsua den. Haurrak, gorputza eta
adimena bere-bereak direla sentitu arte
bide luzea egin behar du. Mendekotasu-
netik autonomiarako bidean, bitarteko
egoerak bizi ditu, amarekin bat egin-
da sentitzetik amarengandik nahikoa
banatuta sentitu arte. Zentzu horretan
"amak dena daki / amak ez daki" ezin-
besteko jolas bihurtzen da. Joan-eto-
rrian, errealtatea eta fantasia bidaide
dira. Batzuetan haurra trantsizio-une
hauek nahikoa bizi izan gabe gelditzen
da. Agian bere kabuz goizegi moldatu
behar izan du, beraren ingurune afekti-
boak huts egin duelako; ondoren, hau-
rrak harremanak modu uzkurragoan
eraikiko ditu. Ingurunearekin bat egin
izanaren esperientziaren aztarnak beti-
ko iraungo du, munduarengan eta nor-
berarengan konfiantza eta ongizate itu-
rri bihurtuz.

Haurrak amarekin duen jarraituta-
sun psikiko-fisikoa eteteko saiakera
serioenetako bat ezezkoaren konkista
da, hitzaren -tartean gezurraren- edo
portaeraren bidez adierazi daitekeena.
Lehen gorputzen arteko jarraitutasu-
na zena, orain pentsamenduen artekoa
izango da, amaren eta haurraren psiko-
gorputzak elkarrekin komunikatuko
dute, hizkuntza sinbolikoaren bidez,
gezurrari ere lekua eginez.

Gezurra esatea kontra-boterea eduki-
tzea da, haurrak berak bakarrik dakie-
lako egia zein den. Eta gezurra gurasoek
osatzen duten bikoteari zuzenduta da-
goenean, guraso-bikotearen fidagarritasuna
ezbaian jartzen du. Garapenaren
une desberdinetan, gezurretan aritzea,
ondoezaren adierazle gisa agertzen da.
Beraz, gezurrak bere balio funtzionala
izan arren, errepikakor bilakatzen bada,
haurrak bere inguruarekin duen komu-
nikazio arazoaren adierazle izango da.

*Kaiera igeri
Kiri-kiri-ket, kiri-kiri-ket
kaiera igeri
ihes egiten badet.*

*Kiri-kiri-ken-du
dena jakiten du.
Kiri-kiri-kik
zelan badakik?
Kiri-kiri-ko-ko-ko-ko
hatz txikiak esaten dio!
Den-den dena esaten dio.*

Alde imajinarioa kantaren leloan da-
tor, helduaren erantzunean, haurraren
gezurraren aurrean nola kokatzen den
adierazten denean. Hasteko, helduari
haurraren gezurrak sentipen desatsegi-
na sortzen dio; haurraren autonomiak
kolokan jartzen ditu helduekiko ordu
arteko beharra eta mendekotasuna.
Haurrak gezurraren bidez adierazten
du ez duela asmorik helduaren azpiko
izateko; gezurra, matxinada-gogoaren
adierazle da.

Iruditzen zait, helduaren haserrearen
lekuko dela abestiaren egitura itsatsita
dagoen leloa. Helduak haurraren gezu-
rrari fantasia sinesgaitz batekin erantzut-
ten dio: amak baduela hatz txiki espioia,
den-dena ikusi eta gero kontatzen dio-
na. Anaia txiki kontakatilu alprojarena
baina beldurgarriagoa dena. Helduak,
fantasia jazartzaile batekin erantzuten
du, ama, pertsonaia mitologikoak bezala,
guztiahaldun egiten duenean. Ondoren,
beldurrak eragindako haurrari, atzera
bidea egiteko esaten dio, ama eta umea-
ren artean pentsamendu-jarraitutasuna
dagoela esanez. Hori da fantasia, mitoa,
ama guztiahalduna, iskin egiterik merezi
ez duena. Horretan baliatuko da umeak
amarekin bat egitean daukan gogoan,
"bat egingo dugu gu bion artean tentsio-
rik egon ez dadin". Mehatxua litzateke be-
tiko fusio-itxaropen hori betiko galtzea.

Baina, azken finean, abestia jolasa da.
Haurrarentzako eta amarentzako -hel-
du zaintzailearentzako oro har- zaila
izan daitekeen egoera bati, fantasia era-
biliz, aurre egiten laguntzeko balio du.
Nolabait esateko, badakigu bananduko
garela, mundua hor dela bere gauza on
askorekin. Baina, horretarako presarik
gabe, jolas dezagun, amets egin dezagun,
eta imajinarioan, beti egongo gara bata
bestearekin etengabeko jarraipenean.
Zilbor-hestea etetea zein zaila den ba-
tuetan. ●